

1.KASUA EPISTEMOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA

Drogekin arazo larriak dituen erabiltzaile batek ez du komunitate terapeutiko batean ingresatu nahi, gizarte langilearen irizpidearen aurka. Gizarte langile honen iritziz, kasu honetan, garrantzitsuena "jendea aldatzea baino, jendea bizi den mundua aldatzea da" (Skinner 1971, 89. or.).

Hori aintzat hartuta, erantzun itzazu ondorengo bi galderak. **Azalpenaren eredu kausalari eta jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduari** dagozkien ideia nagusiak har itzazu erreferentzia moduan erantzunak ematerako orduan:

1. Nolako argudioak erabiliko lituzke nagusiki gizarte langileak erabiltzailea komunitate terapeutikoan ingresatu dezan konbentzitzeko?

Azalpen kausalaren ereduaren arabera, azalpen zientifikoaren gakoaren kausalitatearen kontzeptuan aurkitzen da, izan ere, kasu askotan, fenomeno bat azaltzea fenomeno hori kausatu duen faktorea identifikatzea baita. Azalpen kausaletan, azaldu nahi den gertakaria azaltzeko gertakari hori kausatu duen alde aurreko beste gertakari bat aipatzen da, bi gertakariak erlazionatzen dituen mekanismo kausalaren identifikazioarekin eta deskribapenarekin batera.

Sineskerak eta desioak ez bezala, jokabidea behargarria denez, jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduak, azalpen kausalekin zuzenean erlazionatuta dagoena, pertsonen jokabideak azaltzea eta aurreikustea du helburu, banakoen kontzientzia edo barne egoerak aztertu edo interpretatu ordez. Ereduak hurrengo bi tesi nagusiak defendatzen ditu: (1) Giza jokabidea jokabide automatiko zehatz batzuk suspertzen dituzten ingurune kanpoko kausa batzuek azaldu daitezke (estimulua-erantzun-errefortzua); eta (2) Jokabidea baldintzapen prozesu bidez ikasten da.

Hau guztia azalduta, gizarte langileak esan diezaiokete erabiltzaileari, komunitate terapeutikoan ingresatu dezan, erabiltzailearen ingurunean nagusi diren faktoreak aldatzea ezinbestekoa dela (substantziak lortzeko erraztasuna, seinaleekiko esposizio handia, lagun edo konpainia txarrak, e.a.) haren jokabidea aldatzeko, giza jokabidea modu ia automatikoan determinatuta baitago ingurunean dauden kanpo faktore kausalengatik, eta ez horrenbeste barne faktore intenzionalengatik. Erabiltzaileak drogekiko menpekotasuna bereganatu du ikasketaren bidez eskuratutako baldintzapen prozesu batengatik eta, ondorioz, ingurunean dauden estimuluak aldatuz, hau da, ingurunean dauden kanpo faktore kausalak aldatuz, erabiltzailearen jokabidea aldatzea lortuko da. Horretarako, bultzatu nahi den jokabidea (erabiltzaileak drogak hartzeari uztea) errefortzu positibo bidez saritu beharko da baita ere.

2. Zein zentzutan esan daitezke gizarte langile horrek ez lukeela erabiltzailea aintzat hartuko bere esku hartzea gauzatzeko orduan?

Esan daiteke gizarte langileak ez duela erabiltzailea aintzat hartzen esku hartze honetan interbentzioak ez duelako kontuan hartzen erabiltzailearen intentzioak eta desioak. Jokabidea aldatzearen esku-hartze ereduak, zentzu honetan, nahiko paternalista da, arazoaren konponbidea soluzio zehatz batean dagoela aldarrikatzen baitu (erabiltzailea bizi den ingurunea aldatzea, kasu honetan), erabiltzailearen desioak edo sineskerak zeintzuk diren kontuan hartu gabe. Hortaz, erabiltzaileak haren jokabidea aldatu nahi badu, gizarte langileak proposatutako ekintza onartu beharko du, gustatu ala ez. Gainera, jokabidea aldatzearen interbentzio ereduak ez dituzenez kontuan hartzen erabiltzailearen kontzientziaren edukiak, arazoaren konponbideak orokorrak, hau da, erabiltzaile guztientzako gutxi gora behera berdinak direla uste du eta, ondorioz, erabiltzaileen sineskerak eta desioak zeintzuk diren ez du garrantzitsutzat jotzen interbentzio eredu eraginkorra zein izango den zehazterakoan. Horregatik, gizarte langilea erabiltzailearen droga kontsumoa eragiten dituzten kanpo faktoreak zehazten saiatzen da, ez historia kliniko indibidual bat garatzean.

2.KASUA EPISTEMOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA

Alkoholikoa den eta alkohola utzi nahi duela ziurtatzen duen erabiltzaile batek uko egiten dio, gizarte langilearen irizpidearen aurka, Alkoholiko Anonimoetako bileretara joateari. Erabiltzaileak uste du gai dela bere kabuz eta laguntzarik gabe alkohola uzteko, nahiz eta urteak pasa dituen era horretan alkohola edateari utzi ezinik.

Azalpenaren eredu intentzionalaren eta interbentzio sozialaren eredu humanistaren/existentzialistaren ideiak oinarri hartuta, erantzun itzazu ondorengo bi galderak:

1. Nola azalduko luke gizarte langileak erabiltzailearen portaera? Alegia, portaera horrek gizarte langilearentzat zentzua izango lukeela nolabait arrazionala izango litzatekeelako?

Azalpenaren eredu intentzionalak, giza jokabidea azaltzerako orduan, intentzio batengatik gidatutako ekintza indibidualetan zentratzen da, hau da, helburu bat lortzeko asmoarekin egindako ekintzetan. Azalpen intentzionala ekintzen, desioen eta sineskeren erlazioan oinarritzen da: agente intentzional batek ekintza bat egiten du desio bat asetzeko bitarteko egokia dela sinesten duelako. Orduan, ekintza bat intentzionalki azaltzen da etorkizunean lortu nahi den egoera zehazteko gai garenean.

Interbentzio sozialaren eredu humanista/existentzialista, beste aldetik, jokabidearen azalpen intentzionalarekin zuzenean erlazionatuta dagoena, banakoek haien esperientziei egozten dizkieten esanahi subjektiboan zentratzen da. Ereduaren arabera, jokabide problematikoak edo sintomak barne arazoaren kanpoko adierazpenak dira eta, beraz, ez da nagusiki zentratzen sintomak ezabatzean, erabiltzailearentzat sintomak/esperientziek duten esanahia eta zentzua ulertzen saiatzen delarik. Aldi berean, interbentzio eredu honek, erabiltzaileen erabakitzeko askatasuna eta erabiltzaileen gaitasunak haien arazo propioei aurre egiteko azpimarratzen ditu.

Aurreko guztia behin azalduta, gizarte langileak, erabiltzailearen jokabidea azaltzeko eta arrazionaltzat jotzeko, erabiltzailearen jokabidearen barne kausak (desioak, sineskerak) ezagutu beharko ditu, erabiltzailea alkoholikoa zergatik bilakatu den jakiteko. Erabiltzaileak alkoholismoa nola bizi duen, hau da, haren esperientziari zer nolako zentzua ematen dion ezagutzeari ere ezinbestekoa izango da. Adibidez, suposa dezagun erabiltzailearen alkoholismoaren barne kausa erabiltzaileak, haren bikotea hil zenetik, sentitzen duen muturreko tristura dela. Erabiltzailearen jokabidea azaldu eta arrazionaltzat jo daiteke orduan, erabiltzaileak desio batzuk dauzkalako (triste egoteari uztea eta bere bikotearen heriotzaz ahaztea) eta alkohola edatea desio horiek asetzeko lagungarria suertatzen zaiola uste duelako. Modu berdinean, bere kabuz alkohola uzteko saiakera eta Alkoholiko Anonimoetako bileretara joateari uko egitea ere arrazionaltzat jo daitezke eta esplikatzen daitezke. Erabiltzaileak uste badu bileretara joateak bere desioen kontra doazen sufrimenduak eragingo dizkiola (berriro ere triste egotea eta bikotearen heriotzaz ez ahaztea), orduan, bileretara ez joatea sufrimendu horiek ekiditeko bitarteko egokia izan daiteke haren ikuspegitik.

2. Hala ere, gizarte langileak erabiltzailearen portaera azaltzeak, ulertzeak, ez du esan nahi gizarte langileak erabiltzailearen portaerarekin bat egin behar duenik: “kontua ez da bestearen gogoetei pasiboki men egitea; [bestearen gogoia ulertzerako orduan] pentsamendu aktiboa, alegia, kritikoa, indarrean sartzen da” (Collingwood 1936, 295. or.). Hortaz, zein beste zentzutan da posible argudiatzea, hori aintzat hartuta, erabiltzailearen portaera razionala izatetik urrun dagoela gizarte langilearen ikuspegitik?

Gizarte langileak erabiltzailearen jokabidea eta alkoholismoa irrazionaltzat ere jo zezakeen, izan ere, berez, erabiltzailearen jokabideak (alkohola edateak) ez du balio haren desioak asetzeko.

Alde batetik, erabiltzailearen desioak triste egoteari uztea eta haren bikotearen heriotzaz ahaztea baldin badira, orduan, mozkortzea desio horiek asetzeko behin-behineko eta epe laburreko bitartekoa besterik ez da izango, arazoak ez baitira desagertuko eta hurrengo egunean erabiltzaileak arazo berdinak izaten jarraituko ditu (edo oraindik arazo larriagoak, orain alkoholismoaren kontra ere borrokatu beharko baitu). Beste aldetik, erabiltzaileak alkohola haren kabuz utzi nahi izateari dagokionez, kontuan izanda gainera beste batzuetan hori egiten saiatu dela eta arrakastarik izan ez duela, arrazionaltasuna eta desioen asetzea edo helburuak lortzea oztopatzen dizkiguten faktoreak ere kontuan hartu beharko lirateke: (1) Borondatearen ahulezia; (2) Lehentasunetan aldaketak bai etorkizunaren deskontu hiperbolikoagatik, bai seinaleekiko menpekotasunagatik; eta (3) Desioetan oinarritutako pentsamendua. Faktore hauek jokabide irrazionalak oztopatzen dituzte eta substantziekin menpekotasuna duten pertsonen jokabideak baldintzatzen dituzte askotan.

Zentzu honetan, esan daiteke bai erabiltzailearen alkoholismoa, bai erabiltzailearen ukoa Alkoholiko Anonimoen bileretara joateari, irrazionalak direla, ez baitira bitarteko egokiak erabiltzailearen desioak asetzeko (triste egoteari uztea, bere bikotearen heriotzaz ahaztea, alkohola edateari uztea, e.a.)

Jokabidea aldatzearen eredua:

Konduktismoa: pertsonen jokabidea ulertzea eta interpretatzea, jokabidea enpirikoki hauteman baitaiteke. Kontzientziaren analisia eta interpretazioa baztertu, ideiak eta asmoak ezin baitira enpirikoki hauteman.

→ Arazoaren garapena bultzatu dituzten faktoreak baino gehiago, arazoa sortzen duen jokabidea kontrolatzen dituzten ingurunearen baldintza bereziak kontuan hartzen ditu.

→ Tesi nagusiak: (1) Giza jokabidea jokabide automatiko zehatz batzuk suspertzen dituzten kanpoko kausa batzuegatik azaldu daiteke (estimulua-erantzuna); eta (2) Jokabidea baldintzapen prozesuen bidez ikasten da.

→ Bi tratamendu/interbentzio estrategia (banaka edo modu konbinatuan erabili daitezkeenak): (1) Erabiltzailearen jokabideak aldatu inguruan aurkitzen dituen faktoreen aurrean; eta (2) Ingurunean nagusi diren faktoreak aldatu.

→ Interbentzio sozial konduktistaren ezaugarri nagusiak:

1. Arazoa sortzen duen jokabidea baldintzatzen dituzten ingurunearen egoerak kontuan hartzen ditu, arazoaren sorrerarekin lotutako faktoreak baino gehiago.
2. Gizarte langilearen analisia arazoak sortzen dituen jokabidea azaltzea eragiten dituzten faktoreak determinatzea da (ez historia kliniko baten garapena).
3. Giza jokabide gehienak ikasketaren eta ingurunearen estimuluen bidez bereganatutakoak direla defendatzen du.
4. Zentzumeneren bidez hauteman daitezkeen jokabide elementuetan oinarritzen da interbentzioa, asmoen, sineskeren eta desioen interpretazio subjektiboak alboratuz.
5. Errefortzuak erabiltzen ditu jokabide zehatz batzuk bultzatzeko, mantentzeko edo ezabatzeko.

Eredu humanista/existentzialista:

→ Eredu honen arabera, pertsonok auto-errealizazioa bilatzen dugu, gure ekintzen helburu nagusia hau izanik, honek ematen baitio zentzua gure bizitzari.

→ Inguruneak sustatutako mekanismo psikologikoetan oinarritutako azalpenak baztertzen ditu eta pertsonok gure esperientziei ematen diegun esanahi subjektiboetan zentratzen da.

→ Pertsonen askatasuna, duintasuna eta aukeratzeko potentziala azpimarratzen ditu, pertsonak etengabeko garapen pertsonalean ulertzen dituen bitartean.

→ Pertsonok gure izaera bizitzan zehar hartzen ditugun erabakien bidez osatzen dugu, erabaki horiek askatasunagatik eta kontzientziagatik (asmoak, sineskerak, desioak, e.a.) determinatuta daudelarik.

→ Humanismoaren ekarpenak: (1) Gizakiaren ikuspegi holistikoa (ez murriztatzailea); (2) Ez ditu pertsonaren aspektu desberdinak bereizten arazoaren kausa gisa seinalatuz; (3) Sintomak barne arazoan kanpoko adierazpen gisa ulertzen ditu; eta (4) Ez da zentratzen sintomak ezabatzean, haien esanahia ulertzen saiatzen da.

→ Existenzialismoaren ekarpenak: (1) Gizakiok ez daukagu modu zehatz batean jokatzera bultzatzen gaituen esentziarik, libreak baikara; (2) Gizakiok modu intenzionalean jokatzeko mundu sozialean, gure bizitzari zentzua ematen dioten helburuak bilatuz; eta (3) Aske aukeratzeko gaitasuna daukagu eta honek erantzukizuna inplikatzeko du (benetako existentzia).

→ Interbenitzaerakoan, ereduak atentzioa pertsonen izaera pentsakorrean (asmoak, desioak, sineskerak) jartzen du; hori dela eta, guztiz errespetatzen ditu erabiltzaileak berak bere bizitza ulertzeko duen modua. Interbenitzioaren helburua erabiltzailea haren burua hobeto eta sakonago ulertzea da batez ere.

→ Erabiltzaileek, askotan, ideia/sineskera zehatz batzuk erabiltzen dituzte haien arazoetan mantentzeko eta haien jokabideak justifikatzeko, hortaz, ikuspegiak garrantzi handia ematen dio arrazoimena erabiltzeari ideia horiei aurre egiteko (gizarte langilearen papera).

→ Pertsona askea, autonomia eta haren arazoaren konponbidea da beti; erabiltzaileak ez dira zerbitzuen jasotzaile pasibo hutsak, agente aktiboak baizik, haien bizitzaren determinazioan paper zentrala jokatzeko dute beti.